



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Actividad Física y Deporte

EBAZPENA, 2019ko azaroak 05ekoa, Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN Estatutuetan aldaketak onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituen.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA EAeko Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1988ko abenduak 12an 156 zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA 2019ko ekainak 27an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean bere Estatutuen 9. artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz.

EBATZI DUT

Lehenengoa.- **EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN** Estatutuen 9. artikulua onartu eta EAeko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzea. Artikuluen erredakzioak ondoko moduan geldituko liriteke:

9. artikulua.- Definizioa.

1. E.F.F. - F.V.F.-ren eta dagokion lurraldekoaren kide dela adierazten duen agiria. E.F.F. - F.V.F. lizentzia, zeina pertsonala eta transferiezina da eta lehiaketa ofizialetan partaide izateko ematen dio gaitasuna, beti ere beraiek zuzentzen dituzten arauen arabera.

2. Federakunde lizentzia bakarra izango da eta titularrak izena eman beharko du Euskal Federakundearen eta dagokion lurraldekoan.

3. Euskadiko Futbol Federakundeak federazio-lizentzia bezala homologatuko ditu foru-aldundietako organo eskudunek emandako eskola-lizentziak.

4. Eskola-lizentziak federazio-lizentzien

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1V1P-PPJS bigailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egotza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1V1P-PPJS en la sede electronica <http://euskadi.eus/localizador>



RESOLUCIÓN de 05 de noviembre de 2019, del Director de Actividad Física y Deporte del Gobierno Vasco por la que se aprueba e inscribe en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la modificación de los Estatutos de la FEDERACION VASCA DE FUTBOL.

A la vista de la redacción de la modificación de los Estatutos de la **FEDERACION VASCA DE FUTBOL** inscrita en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco el 12 de diciembre de 1988 con el número 156.

Resultando que la Asamblea General Extraordinaria de la **FEDERACION VASCA DE FUTBOL**, celebrada el 27 de junio de 2019, aprobó la modificación del artículo 9 de los Estatutos de la Federación y que tal aprobación se ha acreditado documentalmente.

Se considera que la modificación de los Estatutos es conforme con los preceptos del Decreto 16/2006, de 31 de enero y de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte de Euskadi.

En su virtud, en ejercicio de las facultades que me competen.

RESUELVO

Primero.- Aprobar en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco la inscripción o modificación estatutaria del artículo 9 de los Estatutos de la **FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL**, quedando redactados de la siguiente manera:

ARTICULO 9. Definición

1. La licencia federativa es el documento de carácter personal e intransferible que otorga a su titular la condición de miembro de la Euskadiko Futbol Federakunde - Federación Vasca de Fútbol, así como de la territorial correspondiente y le habilita para participar en las competiciones oficiales siempre conforme a las reglas que en cada caso rijan las mismas.

2. La licencia federativa será única y supondrá la doble adscripción de su titular a la Euskadiko Futbol Federakunde - Federación Vasca de Fútbol y territorial correspondiente.

3. La Euskadiko Futbol Federakunde - Federación Vasca de Fútbol homologará como licencias federadas las licencias escolares expedidas por los órganos competentes de las Diputaciones Forales.

4. Las licencias escolares serán equivalentes a las licencias federativas. Las licencias

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA***Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Zuzendaritza***DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA***Dirección de Actividad Física y Deporte*

lehiaketetan parte hartzeko izan ezik, homologatutako lizentziek gainerako ondorio guztietarako gaitu egiten dituzte beren titularrak.

homologadas no habilitan a su titular para participar en competiciones deportivas federadas, pero se consideran equivalentes a la licencia federada para todos los demás efectos.

Bigarrena.- Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Segundo.- Notifíquese en el plazo legal establecido.

Hirugarrena.- Ebazpen hau euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Tercero.- Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Laugarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea ez du amaitzen eta, bere aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkez dakioke Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuari hilabeteko epean, ebazpena jakinarazten den hurrengo egunetik aurrera.

Cuarto.- Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer Recurso de Alzada ante el Consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su notificación.

Jon Redondo Lertxundi
JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZUZENDARIA

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA

218. zk., 2019ko azaroaren 15a, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5285

EBAZPENA, 2019ko azaroaren 5ekoa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, Euskadiko Futbol Federakundearen Estatutuetan egindako aldaketak onartu eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatzen dituen.

Euskadiko Futbol Federakundea Euskadiko Kirol Elkartearen eta Federazioen Erregistroan inskribatu zen 1988ko abenduaren 12an 156. zenbakiarekin. Federazioaren Estatutuen aldaketak aurkeztu dira orain.

Euskadiko Futbol Federakundeak, 2019ko ekainak 27an egindako Ezohiko Batzar Orokorrean, bere Estatutuen 9. artikulua moldatzeko erabakia hartu zuen, eta onarpen hori agiri bidez frogatu da.

Estatutuen aldaketak bat datoz urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuan eta Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean xedatutakoarekin.

Ondorioz, nire eskumenak erabiliz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskadiko Futbol Federakundearen Estatutuen 9. artikulua onartu eta Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatzea. Artikuluaren erredakzioa modu honetan gelditzen da:

9. artikulua.– Definizioa.

1.– Federakundearen lizentziak adierazten du haren titularrak Euskadiko Futbol Federakundearen eta dagokion lurraldekoaren kide dela. Pertsonala eta transferiezina da eta lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitasuna ematen dio, betiere haiek zuzentzen dituzten arauen arabera.

2.– Federakundearen lizentzia bakarra izango da, eta titularrak izena eman behar du Euskal Federakundearen eta dagokion lurraldekoaren.

3.– Euskadiko Futbol Federakundeak federazio-lizentzia bezala homologatuko ditu foru-aldundietako organo eskudunek emandako eskola-lizentziak.

4.– Eskola-lizentziak federazio-lizentzien baliokideak izango dira. Eskola-lizentziek ez dute ahalmenik ematen federatutako kirol-lehiaketetan parte hartzeko, baina federazio-lizentzien baliokideak izango dira gainerako ondorio guztietarako.

Bigarrena.– Legez ezarritako epean jakinarazteko agindua ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, pertsona interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkez diezaioke Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroaren 5a.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria,
JON REDONDO LERTXUNDI.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN

ESTATUTOAK

I TITULOA Xedapen orokorrak

1. artikulua.- Euskadiko Futbol Federakundea

Euskadiko Futbol Federakundea - Federación Vasca de Fútbol (EFF-FVF) legezko nortasuna eta ihartutzako gaitasuna duen irabazte-xederik gabeko entitate da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko Lurralde Federakundeak batzen dituen lankidetzaren erregimenean eta beraien bidez, Euskal Herriko autonomi Elkartearen futbol kirol motaren ihardura, sustaketa eta antolaketarako diren kirolari, teknikari, arbitro, klub eta kirol-elkartek.

2. artikulua.- Antolamendu aplikagarria

Honako hauek arautzen dituzte EFF-FVF-k, 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Kirolaren Legeak, Dekretu honek, urtarrilaren 31ko Euskal Herriko Federazioena, eta garatu duten xedapenek, honako Estatukoek eta arautegi espezifikoek, eta federazioko organoek balioz hartutako erabakiek.

3. artikulua.- Egoitza.

E.F.F. - F.V.F.-ren egoitza soziala, Bilbon, Julian Gayarre, kaleko, 48an.

4. artikulua.- Eskuduntzak.

E.F.F. - F.V.F.k, futbol kirol motari eta Hondar eta Areto futbola diziplinari dagozkien ihardunera eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu, arautu eta antolatzen ditu Euskal Herriko autonomi Elkartearen.

5. artikulua.- Funtzioak.

1) Bere xedeak betetzeko, Federakundeak ondoko eginkizun hauek beteko ditu:

a) Dagozkien kirol modalitatea ordezkatzea Estatutuan eta, hala dagozkionean, euren federazioa beste erakunde batzuei atxikitzeko era zehaztea.

b) Osatzen duten lurraldeetako federakundeen ihardurak koordinatzea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

c) Lehiaketa eta jarduera ofizialak antolatzea autonomia erkidegoko eremuan euren kirol modalitateari dagozkion kirol diziplina guztietarako

d) Norbere parte hartze eta elkar lehiatze arauak ezartzea, hala denean, lurralde eremu handiagoko federakundeek emandako arauen ezarpenaren kaltetan izan gabe.

e) Baliabideak jartzea euren estamentu guztiek estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte har dezaten.

f) Berari dagozkion federakunde-lizentziak ematea.

g) Osatzen duten lurraldeetako federakundeen artean sor daitezkeen kirol-aztiak eta haien iharduraren bilakaeran zorteen diren liskarrak ezagutu eta erabakitzea.

h) Indarrean dagoen legediaren arabera, diziplinazko arau eta prozedurak idatzi eta arautzea, bakoitzak bere diziplinazko organoekin osatzen duten federakunde eta entitate guztientzat ezarpen eta oharpenerako balio izango dutenak.

i) Administrazioari, kirolean debekaturiko farmako eta gai-talde farmakologiakoen erabilera eta araudien kontrako bideen erabilera aurrezaintzen, kontrolatzen eta zapaltzen laguntzea, horretarako finkatuko den araudiaren arabera.

j) Berari dagozkion arbitro eta teknikariak hesitzea, berorretarako, lurraldeetako federakundeekin batera, osatuko den araudiaren arabera.

k) Bere baliabide ekonomikoak banatu eta zertarakoak zehaztea, bere ihardurarako beste entitate batzuek bertaratutako baliabideak kudeatzea eta bere baliabide guztien erabilera zuzen eta egokia zaintzea.

l) Lurraldeetako federakundeei edota klubei eta kirol-elkarteei eman liezazkiekeen dirulaguntzen banaketa eta horiek nola erabiltzen diren zaindu.

m) Euskal Herriko administrazioekin batera, kirol-sustapenerako xedeak betetzen aritzea, eta bereziki Legeak federakundeei zuzenean eratzikitzen dizkien lankidetzak eta aholkatze betekizunetan.

n) Bere estatutuak eta kirol-araudiak egitea.

o) Dagozkien modalitatean eta lurralde eremuan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna sustatzea eta, han de heinean, bermatzea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

p) Eta oro har, dagokien kirol modalitatearen jarduera sustatzeko eta hobetzeko komeni den guztia xedatzea.

2) E.F.F.-F.V.F.k lurraldeko federazioen jarduera koordinatzeak beharrekota diren neurri organiko eta funtzionalak hartuko dituzte, bateratuak ez diren jarduerak saihestearren, ahaleginak optimizatzearen, eta euren kirol modalitateerako sistemaren ekintza batasuna lortzearen

3) Koordinazio funtzioak subsidiarioki beteko dira, funtzio horien helburuak lankidetzaren edo partaidetzaren bidez ezin lor daitezkeenean.

6. artikulua.- Funtzio publikoak.

1.- E.F.F - F.V.F., administrazio funtzio publikoak betetzen dituzte, eta, halakoetan dagokion administrazioaren agente laguntzaile gisa jarduten dute.

2.- Dagokion administrazioaren irizpidearen, babesaren eta kontrolpean, honako administrazio funtzio publiko haiek betetzen dituzte:

a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, arautzea, antolatzea eta baimentzea

b) Euskadiko kirolak Estatuko eta nazioarteko lehiaketetan izango duen ordezkartza arautzea.

c) Federazio Lizentzi ematea eta izapidetzea.

d) Kirol Jardueretako indarkeria prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.

e) Dopatzea prebenitzea, kontrolatzea eta zigortzea.

f) Kirolean duten diziplina almena baliatzea.

g) Kirol Justiziako Euskal Batzordearen ebazpenak gauzatzea.

h) Euren estatutuak eta arautegiak onartzea.

i) Administrazio publikoari laguntzea haren programetan eta haietan parte hartzea.

j) Federazioko hauteskundeak kontrolatzea.

7. artikulua.- Ordezkaritza.

1.- E.F.F. - F.V.F.k ezin izango du inola ere eskuordetu, dagokion administrazio baimena gabe, berari eskuordetu zaizkion funtzio publikoak



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

betetzea. Dituzten ezaugarriengatik eskuorde daitekeen funtzioetarako baino ez da emango baimen hori

2.- E.F.F.-F.V.F. k eskuordetu ahal izango dio funtzio publikoak betetzea, aurretik aipaturiko administrazio baimena dutela, ordezkatzan dituztenei.

8. artikulua.- Bereizkeria.

E.F.F. - F.V.F.-ren baitan ez zaio bide emango inolako bereizkeriari, arraza, har-emetasun, erlijio, iritzi eta sineskeria, edota bestelako zirkunstantzia pertsonalak edo sozialak direla eta.

II TITULO A

Federakunde-lizentziak eta lehiaketa ofizialak

I KAPITULO A

FEDERAKUNDE LIZENTZIAK

9. artikulua.- Definizioa.

1. E.F.F. - F.V.F.-ren eta dagokion lurraldekoaren kide dela adierazten duen agiria. E.F.F. - F.V.F. lizentzia, zeina pertsonala eta transferiezin da eta lehiaketa ofizialetan partaide izateko ematen dio gaitasuna, beti ere beraiek zuzentzen dituzten arauen arabera.

2. Federakunde lizentzia bakarra izango da eta titularrak izena eman beharko du Euskal Federakundean eta dagokion lurraldekoan.

3. Euskadiko Futbol Federakundeak federazio-lizentzia bezala homologatuko ditu foru-aldundietako organo eskudunek emandako eskola-lizentziak.

4. Eskola-lizentziak federazio-lizentzien baliokideak izango dira. Federatutako kirol lehiaketetan parte hartzeko izan ezik, homologatutako lizentziek gainerako ondorio guztietarako gaitu egiten dituzte beren titularrak.

10. artikulua.- Igorpena.

1.- Federakunde lizentzia, E.F.F.-F.V.F.-, berak igorriko du, dagokion lurralde-federakundeak bideratu eta kasurako adierazten den edukiaz eta betebeharreko azterketa medikoa egin ostean titularra federazioak antolatutako lehiaketetan parte hartzeko gai izango da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- E.F.F.-F.V.F da federazio lizentzien erregimena – agirien, kirolaren nahiz diruaren aldetik – ezartzeko eskumena duten erakundeak, hortaz honako hauek ezarriko dituzte eskubideak eta betebeharrak.

3.- E.F.F.-F.V.F. borondateko kuota gehigarri a jaso ahal izango dute federatuengandik, federazioaren zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.

4.- E.F.F.-F.V.Fk bere Batzar Nagusian onartutako moduan banatuko dute lizentzi bakoitzaren zenbateko garbia. Honela lortuko da zenbatekoa garbi hori. Zenbateko gordinari 12.1 artikulua.-.- ezarritako zenbatekoak kenduko zaio. Jasoko den zenbatekoa ezingo da izan, inola ere, lehen aipaturiko zenbateko garbiaren % 35^a baino txikiago.

11. artikulua.- Lizentzien itxura.

1.- E.F.F.-F.V.Fk onartuko ditu lizentzien formatua eta edukia, eta lizentziotan, halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.

2.- Lizentzien euskarriak komunikazioaren teknologiak egoki aprobetxatzeko moduko baldintza teknikoak izango ditu. Kiroletan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak onartuko ditu euskarri horien ezaugarri teknikoak.

12. artikulua.- Aseguruak.

1.- Pertsona fisikoen federazio lizentzia bakoitzak arrisku hauek, gutxienez, estaltzea bermatzen duen aseguru ekarriko du berekin

a) Erantzukizun zibila

b) Galera anatomiko edo funtzionalengatiko edo heriotzarengatiko kalte ordainak.

c) Osasun laguntza, osasun sistema publikoak doaneko estaldurarik ematen ez duen kasu eta esparruetarako, titularrari arrisku horiek beste aseguru batek estaltzen ez dizkionean.

2.- Aurreko idatz zatian aipaturiko aseguruaren prestazioak izango dira, gutxienez, 1993ko ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuak, Estatuko lehiaketa federatuetarako nahitaezko kirol aseguruaren gutxienezko prestazioak ezartzen dituenak edota urtarrilak 31ko Euskal Herriko Kirol Federakundeen 16/2006 Dekretuan ezarritakoak garatzean ezarriko direnak

3.- Kirol denboraldi bakoitzaren hasieran E.F.F.-F.V.F.k Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari eginiko aseguruaren kopia bidaliko dio, haren berri izan



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

dezan eta dagozkion ondorioetarako, bai eta, bermatuta dauden estatu eta prestazioak zehazturik, aseguru horiek dituzten baldintzen kopia ere.

13. artikulua.- Igorpenaren ukapena.

1.- Lizentzi emateak izaera arautua izango du, eta beraz, ezin izango da lizentzia ematea ukatu eskatzaileak lizentzia eskuratzeko beharrezko baldintzak betetzen dituenean.

2.- E.F.F. – F.V.Fk lizentziak izapidetzeko eta emateko, edo ukatzeko, betebeharra dute, gehienez hilabeteko epean, behar bezala dagokion Lurraldekoan formalizaturiko eskaera aurkeztu hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

3.- Lizentzia emateko eskatu eta gero, baldin lehen zehaztu den gehieneko epearen barruan ez bada espresuki ebazpena jakinarazten, lizentzia eman egin dela ulertu da.

4.- Aurreko idatzi zatietan aipaturiko lizentziak izapidetzea edo ematea ukatzen dela espresuki jakinarazten denean (arrazoiak emanen ukatu beharko da), edota lizentzia egiaztatzen duten agiria eskuratzeko ukatzen denean, errekurtsioa jarri ahal izango da Eusko Jaurlaritzan, kiroletan eskumenak dituen zuzendaritzaren aurrean, zazpi egun naturaleko apean. Horretarako, 1992 ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen gora jotzeko errekurtsioetarako ezarritako erregimenari jarraituko zaio.

5.- E.F.F.-F.V.Fk zuzendaritzako kideen erantzun egin beharko dute, baldin eta arrazoitu gabe aurreko ataletan aipaturiko federakunde lizentziak ematea ukatzen badute, bere eskaerei buruzko ebazpenak epe barruan ematen ez badituzte, edo lizentziak iruzurrez, espresuki edo ustezko, ematen badituzte. Halakorik gertatzen bada, sor daitekeen erantzukizun zibila edo penalaz gain, zuzendaritzako kide horiei horren arabera zigorra jarri ahal izango zaie.

II KAPITULOA LEHIAKETA OFIZIALAK

14.artikulua.- Definizioa.

1.- Komunitate-eremuan, lehiaketa ofizialak arautu, kalifikatu edo baimentzeko eta dagozkien titulu ofizialak emateko gaitasuna duen entitate bakarra E.F.F.-F.V.F. da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- Lehiaketa ofizialak, E.F.F. - F.V.F.- horrela deitutakoak eta lehiaketen egutegi ofizialaren barruan sartuta daudenak izango dira.

3.- Lehiaketa ofizial baten ondorioa ez bada, ezin izango dira titulu ofizialak igorri.

15. artikulua.- Egutegiak.

1.- E.F.F.-F.V.F.k euren lehiaketa ofizialen egutegi berezia izan beharko du.

2.- Federazio lizentziak titularrek baino ezin izango dute parte hartu eskubide eta betebeharrak guztiekin lehiaketa ofizialetan.

3.- Lurraldeko federazioen egutegi ofizialak onartu baino lehen, E.F.F.-F.V.F.koenak onartu beharko dira

4.- E.F.F.-F.V.F.k bermatu beharko dute autonomia erkidego osoko lehiaketetan aintzat hartuko direla, parte-hartzeari dagokionez, lurraldeko Federazioen lehiaketa ofizialen emaitzak

5.- E.F.F.-F.V.F.k bere funtzioak koordinatu beharko ditu, kirol lehiaketen pirámide egitura egokia bermatzearen.

III TITULOA Federakundearen organoak

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

16. artikulua.- E.F.F-F.V.F ko organoak.

1.- E.F.F.-F.V.F.-n gutxienez ondoko organo hauek izango dira:

A) Gobernu-organoa.


1) Biltzar Nagusia.

B) Administrazio-organoa.

1) Zuzendaritza Batzordea.

C) Ordezkaritza-organoa.

1) Presidentea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

D) Barne-araudi-organoa.

- 1) Idazkaritza Nagusia.
- 2) Diruzaintza.
- 3) Kirol Tekniko Zuzendaritza.

E) Teknikari-organoa.

- 1) Euskadiko Entrenatzaileen Batzordea.
- 2) Euskadiko Arbitroen Batzordea.
- 3) Areto Futboleko Euskal Batzordea
- 3) Kirol Teknikarien Euskal Eskola.

F) Kirol-justizia-organoa.

- 1) Aginpidezko eta Diziplinazko Batzordea.
- 2) Goragotze-Batzordea.
- 3) Eskumen eta Kontziliazioa Batzordea.

2.- Hautapenezko erakundeak izango dira Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea, Batzorde Orokorra; gainerako erakundeak EFFko presidentek izendatuko ditu modu askean.

17. artikulua.- Kidea izateko betebeharrak.

E.F.F.-F.V.F.-ren edozein organotako kide izateko baldintza orokorrak honako hauek dira:

- 1.- Adinez nagusia izatea.
- 2.- Egoitza federazioaren jardura eremuan izatea. Salbuespenez, Batzar orokorrak baldintza hori dispentsa dezake
- 3.- Karguak edo funtzioak betetzeko gaitasuna kentzen duen diziplinazko zigor irmorik bete behar ez izatea
- 4.- Epai judizial irmoaz kargu publikoak betetzeko gaitasuna baliogabetzen duen zigorrik ez izatea,



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- Erabaki judizial irmoaz ezgai deklaratu ez izana.

18. artikulua.- Berrautaketa.

1.- Elkargoaren organoetan, hautapen bidez, kide diren guztiek haien funtzioen jardueran jarraituko dute ordezkatzan dutenak heldu arte, eta Estatutu hauetan adierazitakoaren arabera berrautatuak izan daitezke.

2.- Edonolako inguruabarra dela eta, aipatutako aginte-garaia beteko ez balute, sortutako hutsa beteko dutenek, ordezkatuak izan direnei falta zitzaien denbora beteko dute karguan eta haiek ezin izango dira hautaketa berri batera aurkeztu, hautatuak izan zireneko garai olinpikoa pasatu arte.

19. artikulua.- Kargu uztearen Zergatiak.

1.- E.F.F.-F.V.F.-ko organoetan kide direnek, ondoko arrazoi hauengatik utziko diote izateari:

a) Aginte-epearen bukaera.

b) Kentzea, hala dagokionetan, hautespen bidezko kargua ez izateagatik.

c) Kargua bertan behera uztea.

d) Kargua betetzea galarazten duen ezgaitasuna.

e) Estatutu hauen 17. artikulua.-k adierazten duen hautsezintasun arrazoiaren batean erortzea.

f) Legez edo Estatutuen bidezko bateraezintasuna.

2.- Gaitzespen-botoa, E.F.F.-F.V.F.-ren Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea, baldin badira.

20. artikulua.- Betearazteko akordioak.

1.- Bestelakorik ezean, Federakundearen organoek hartutako erabaki eta akordioak betearazteko izango dira eta interesatuei jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera ekarriko ditu ondoreak.

2.- E.F.F.-F.V.F.-ko kide anitzeko organoen erabakiak bertaratutako kideen gehiengo soilaz hartuko dira, lege edo estatuko xedapenek gehiengo kualifikatua eskatzen duten kasuetan izan ezik.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3.- Federakundearen organoek hartutako erabaki guztien berri jasoko du Idazkariak akta batean, honek gutxienez, parte hartu duten pertsonen izena, bilkura ospatu den lekuaren eta denboraren gorabeherak, eztabaidatu diren punturik nagusienak, botoa emateko modua eta emaitza eta akordioen edukia izan beharko du.

4.- Hartutako erabakiaren aurkako batuek, beti ere motibatuak baldin badira, elkargoaren organoetako erabakietatik erator litekeen erantzukizunetik salbatuko dute.

5.- E.F.F.-F.V.F.k hurrenez hurren, bidali beharko dizkiete Batzar Nagusietako aktak, batzarra egin eta lau hilabeteko apean.

II KAPITULUA BILTZAR NAGUSIA

21. artikulua.- Funtzioak.

Biltzar Nagusia Federakundearen goreneko gobernu-saila da eta, gutxienez, ondoko egiteko hauek izango ditu bere gain:

- a) Presidentea eta Zuzendaritza Batzordea izendatzea.
- b) Federakundearen diru-kontuak eta aurrekontuak ontzat ematea.
- c) Federazioa desegin dadin erabakitzea
- d) Presidenteari eta Zuzendaritza Batzordeari egindako gaitzespen-eskea ontzat ematea.
- e) Lehiaketen egutegi ofiziala ontzat ematea.
- f) Federakundearen jardutze egitasmoa ontzat ematea.
- g) Federazioaren estatuak eta arautegiak onartze eta aldatzea.
- h) Ondasun mugiezinak erabiltzea, saltzea eta zergapetzea, mailegu-hartzeak egitea eta zor-agiriak edo alikuota ondare zatia ateratzea.
- i) Eragin handia izateagatik Batzar Nagusian onar dadin eskatzen duen guztia.

22. artikulua.- Agintearen hautaketa eta epea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 1.- Batzar Nagusia lau urtean behin aukeratuko da, boto librea zuzena, berdina eta sekretua oinarri hartuta, udako Joko Olinpikoak egiten diren urteetan.
- 2.- Salbuespen gisa, eta administrazioak beraiez hala baimenduta, hauteskunde prozesuak aurreratu edo atzeratu egin daitezke, baldin eta hauteskundeak hasteko ezarrita zegoen datan ezezkoa bada.

I ATALA BILTZAR NAGUSIAREN OSAKETA

23. artikulua.- Osaketa.

- 1.- Biltzar Nagusia, lurralde-federakundeen sailtako ordezkariak osatuko dute.
- 2.- Biltzar Nagusia eratzeko, lurralde-federakunde bakoitzari, E.F.F. - F.V.F.-n zentsatuta daudenen kopuru osoa kontutan hartuz sail bakoitzetik atxikita dituen osakideen kopuruaren proportziozko ordezkari-kopurua emango zaio.
- 3.- Osakideen kopuru osoa 125 osakidetako izango da. Lurralde-federakundeei sailez sail dagozkien osakideen kopurua, hauteskunde bakoitza izan aurretik zehaztuko du onartutako hauteskunde-zentsua kontutan hartuz hauteskunde-batzordeak.
- 4.- Biltzarreko kideetarik ehuneko laurogeita hamabi, hau da, 115, espezialitate nagusikoak izango dira, eta ehuneko zortzi, hots, 10, Areto Futbolekoak.

24. artikulua.- Estamentuen Banaketa.

Biltzar Nagusia, klub eta kirol-elkarte, kirolari, teknikari eta arbitroen sailtako ordezkariak osatuko dute, ondoko proportzio hau erabiliz, bai espezialitate nagusiari bai Areto Futbolari dagokienez:

- a) Klub eta kirol-elkarteen sailaren aldetik, biltzarkideen kopuru osoaren %70ko ordezkaritza, elkarte bakoitzetik ordezkari bat izanik.
- b) Kirolarien sailaren aldetik, biltzarkideen kopuru osoaren %15ko ordezkaritza.
- c) Teknikari eta arbitroen sailaren aldetik, biltzarkideen kopuru osoaren %15ko ordezkaritza, ordezkaritza hau hauteskundeetarako deialdia egiten den unean egondako sail bakoitzaren baimen-kopuruaren proportziozkoa izanik.

II ATALA



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

BILTZAR NAGUSIRAKO KIDEEEN HAUTAKETA

25. artikulua.- Ordezkaritza.

Biltzar honetan lurralde-federakunde bakoitzaren kirol-sail guztiak izango dira ordezkaturak.

Berau hautatzeko, lurralde-federakundeen biltzar orokorretarako osakide guztiak eratu behar dira hauteskunde kidegoa, beraiek ezarritako hauteskunde-prozeduraren arabera.

26. artikulua.- Proporzionaltasuna.

Biltzar Nagusirako osakideen kopuruak, lurralde-sail bakoitzaren zentsuaren proporzionaltasuna gordeko du.

Lurralde-biltzar bakoitzak, bere ordezkarien artean agintaldian zehar Biltzar honetan gerta daitezkeen bajak betetzeko modua ere aurreikusi behar izango du.

27. artikulua.- Deialdia.

1.- Biltzar Nagusiaren hautaketatik lau urte igaro baino lehen, Zuzendaritza Batzordeak, Hauteskunde Batzordearen bilkurarako deia egingo du, hauteskunde-prozedurari hasiera eman diezaion.

2.- Ez badago hau egiterik, Federakundearen Biltzar Nagusirako edozein osakidekok, osakideen kopuru osoaren %5aren ordezkariak, gutxienez, izanez gero, Hauteskunde batzordearen bilkurarako deia egin dezake.

III ATALA

BILTZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

28. artikulua.- Bilkurak.

1.- Biltzar Nagusia bilkura arruntetan eta apartekoetan elkartuko da.

2.- Biltzar Nagusia bilkura arruntetan urtean behin gutxienez elkartuko da lehen Sei hilabetekoan, ondoko hauetarako:

a) Diru-kontuen eta aurrekontuen egoera ontzat emateko.

b) Jarduera egitasmoa ontzat emateko.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

c) Lehiaketen egutegi ofiziala ontzat emateko.

3.- Halaber, gainontzeko edonolako gaiak ere, hurrengo lerroaldean aurreikusitakoak ezik, izango dira biltzar arruntaren eskumenekoak, eta hauetaz gain:

a) Federakundearen kirol-funtzionamenduan eragina duten kirol-elkarte, federakunde, erakunde eta korporazio publikoekiko akordio eta hitzarmenak ontzat ematea.

b) Ondasun mugiezin propioak saltzea eta zergapetzea, mailegu-hartzeak egitea eta zoragari eskualdagarriak, akzioak edota obligazioak ateratzea.

c) Federakundearen alde egin daitezkeen dohaintzak, dirulaguntzak edota bestelako eskuzabaltasun-mota onartzea, berauek zama garesti edota baldintzatuak izango balira.

4.- Biltzar Nagusia ohiz kanpoko saioan bilduko da honako gai hauei jorratzeko

a) Hauteskundeak egitea

b) Estatutuak onartzea eta aldatzea

c) Arautegiak onartzea eta aldatzea

d) Zentsura mozioa

e) Federakundearen desegitea eta iraungipena.

29. artikulua.- Deialdia.

Biltzar Nagusi arruntetarako deia egitea berez Federakundearen Presidenteari dagokio, edota Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen gehiengo osoak edo Biltzar Nagusiko osakideen %5ak eskaturik.

Aurrekoa ahalezkoa ez balitz edo Presidenteak biltzarreko deia egiteko betebeharra beteko ez balu, Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen gehiengo osoak edo osakideen %5a ordezkatzeko duen kidegoak egin lezake deia.

Ez-ohizko Biltzar Nagusietarako deia egitea berez Federakundearen Presidenteari dagokio, edo Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenek edo Biltzar Nagusiko osakideen %5ak eskaturik.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Aurrekoa ahalezkoa ez balitz edo Presidenteak biltzarrerako deia egiteko betebeharra beteko ez balu, Zuzendaritza batzordea osatzen dutenek edo osakideen %5a ordezkatzeko duen kidegoak egin lezake deia.

Presidenteak, horretarako legebideztaturiko edozein kidegok edo jarduerasailak eskaera egin ondoren, 15 egunetako gehienezko epealdia izango du biltzarrerako deia egiteko.

30. artikulua.- Deialdiaren Eskuduntza.

Biltzar Nagusirako deia, arrunterakoa zein apartekorakoa, Federakundearen Presidenteak egingo du, izango den data baino 15 egun lehenagoz, idatziz, aztergaien zerrenda eta bilkuraren lekua, eguna eta ordua adieraziko dituelarik, baita lehen deialdia baino ordu erdi beranduago izango den bigarren deialdia aipatuz ere.

31. artikulua.- Egunero Gai Zerrenda.

Biltzarreko osakideek, interesgarri deritzeten gaiak eguneko aztergaien zerrendan sartzea eska diezaiokete Presidenteari, eskaera Biltzarreko osakideen %15ak gutxienez proposaturik egiten denetan, eta biltzarra izango den data baino hamar egun lehenagoz eskatzen denetan.

32. artikulua.- Eraketa.

Biltzar Nagusia lehenengo deialdian osakideen erdia gehi bat daudenean eratuko da baliagarritasun osoz. Bigarren deialdian, bertan daudenak direnak direla geldituko da biltzarra balioz eratuta.

Biltzar Nagusiaren baitan boto-eskuordetzea ez da onartuko.

33. artikulua.- Bozketa.

Estatuko hauetako 28.4.a) artikulua.-ri dagozkion erabakiak onartzeko izan ezik, horietarako beti isilpeko eta idatzizko boto-ematea beharko delarik, biltzarrean aurrera emango diren gainontzeko boto-emateak, nahiz aipaturiko moduan, nahiz ahoz, nahiz eskua jasoz egin daiteke, Presidenteak erabakitakoaren arabera.

Biltzar Nagusiaren erabakiak, dauden biltzarkideen gehiengo bakunak hartuko ditu.

Aurreko lerroaldean aurreikusitakoaren salbuespen gisa, Estatu hauetako 28. artikulua.-ren 4) lerroaldeko b) d) eta e) epigrafeei dagozkien akordioak eta



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

erabakiak onartzeko, biltzarrera joandako osakideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

III KAPITULUA PRESIDENTEAZ

34. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- E.F.F.-F.V.Fko Presidenteak, Federakundearen legezko ordezkariak du bere gain eta Biltzar Nagusiak eta, hala izanez gero, Zuzendaritza Batzordeak ontzat emandako erabakiak burutzen ditu, bai batak eta bai besteak egiten dituzten bilkuren buru izan eta gidatu egiten ditu eta, boto parekotasuna gertatuz gero, kalitatezko botoaz erabaki egingo du.

2.- Batzar Nagusiak lau urtetik behin Presidenteak aukeratuko du kideen artean horretarako deitzen den bileran boto libreaz, zuzenaz, berdinez eta sekretuaz baliatuz. Hautagai bakarra egotekotan, ez da bozketarik egingo.

3.- Federakundearen Presidenteak, hautaturik suertatutako hautagai-zerrendako lehena izango da.

4.- Presidenteak osterak ere hautatu ahal izango da hurrengo hauteskundeetan sei agintaldien tope ezarriz.

5.- Bere agintaldia bete bitartean, Presidenteak ezin dezake kirol-motak bereko beste federakunde batean izaera berdineko kargurik bete, klub edo elkarte presidenteak, eta futbolari, arbitro edo entrenatzaile jarduerarekin bateraezina izango da, baldin baleuka, bere lizentziaren jabe izaten segituz, bere agintaldian zehar indarririk gabe geratuko delarik E.F.F. – F.V.F. Presidenteak uzten duenean.

6.- Edozergatik bere agintaldia betetzerik ez baldin badu, hutsaldia beteko duenak ordezkatzeari betetzeko geratu zaion epealdi berean egingo luke.

7.- Ez-egonaldia, gaixoaldia edo bere egitekoak betetzea epealdi batez galarazten duen bestelakoak gertatuz gero, bera izendatutako presidenteordeak ordezkatu du Presidenteak.

35. artikulua.- Funtzioak.

Betearazpen eta ordezkapenerako jarduera-sail gisa bereak dituen egitekoez gain, ondoko zeregin hauek ere badagozkie Presidenteari:

- a) Biltzar nagusirako deiak egitea, bertako buru izaki.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

b) Biltzar Nagusiak onartutako erabakiak betetzearen, berauen burutzapena bultzatzea eta sustapena.

c) Zuzendaritza batzordearen bilkuretarako deiak egitea eta bertako buru izatea, eguneko aztergaien zerrenda finkatuz.

d) E.F.F - F.V.F ren izenean ordainketak agintzea.

e) Abokatu, prokuradore edota bestelako mandatariei ahal bereziak edo orokorrak ematea. E.F.F - F.V.F ren legezko ordezkari izan dezaten epaiketetan zein bestelakoetan.

f) Batzorde Orokorrak emandako eta egungo Estatutuetatik eratorritako eskuduntza guztiak

36. artikulua.- Kargu uztearen Zergatiak.

1.- E.F.F.-F.V.F.aren ondoko kausa hauetariko bat dela eta utziko du bere kargua bertan behera:

a) Kargua bertan behera uzteagatik, hiltzeagatik edota ez egote adierazpenagatik.

b) Gaitzespen-eskea onartzeagatik.

c) Gaieztapen edo ez gaziketagatik.

d) Beraren agintaldia ahitzeagatik.

e) Estatutu hauetan aurreikusitako bateraezintasun edo hautsezinezko kausa batean erortzeagatik.

f) Zuzendaritza Batzordeak utziko dute kargua baldin 42.1 artikulua a) eta c) taldetan zehaztu diren kausa berak gertatzen bazaizkie.

2.- Presidenteak kargua uzten badu, funtziotan jarraituko du Hauteskunde Batzordea hilabete bateko epean deituko duelarik, horrela Hauteskunde prozedura hasiko da.

Hau ez bada posible, Batzar Orokorreko edozein partaide taldeak, beti Batzarraren %5 betetzen badu, Hauteskunde Batzordea deituko ahal izango du.

IV KAPITULUA ZUZENDARITZA BATZORDEA



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

37. artikulua.- Definizioa.

Zuzendaritza Batzordeak federakundearen administrazio organoa da eta Biltzar Nagusiak igorritako arauenenekin akordioan dauden federakunde agi ekonomiko zein administrazio kudeaketa funtzioak egiten ditu.

38. artikulua.- Osaketa.

1.- Zuzendaritza Batzordeak, zenbaki bakoitiko partaideak izango ditu

2.- Zuzendaritza Batzordean barne, Presidenteorde bat egongo da, eta Presidentearen betebeharrak egingo ditu hau gaixotuan edo ez dagoenen, honetaz gain osatzen duten lurralde-federakundeen Presidenteak, eskubide osoko kideak izango dira, presidenteorde gisa.

3.- Biltzar Nagusiko kideak ez diren Zuzendaritza Batzordeko kideak biltzarrera hizpidez baina hautespiderik gabe joan daitezke.

4.- E.F.F.-.F.V.F.ko zuzendaritza kargua bateraezina da erakunde bereko kontseilari edo aholkulari profesional izatearekin. Halaber, Zuzendaritza kargua bateraezina da federazioan zerbitzu profesional eskaintzearekin lan harremanaren, harreman zibilaren edo merkataritza harremanaren bidez

5.- Era Berean bateraezina da jokalaria, epaile edo entrenadore izatearekin, bere lizentzia mantenduz, izango balu, etenean izango da agintaldian zehar.

6.- Zuzendaritza Batzordearen baitan, Estatutu hauetako 36.2 artikulua.-n ahaztutako kausaren bat dela eta kargua bertan behera uztea edo aldi-bateko ez-egonaldia gertatuz gero, Presidentearen egitekoak bere gain hartuko dituen Presidenteordea izango da.

39. artikulua.- Hautaketa.

Zuzendaritza Batzordeko kideak lau urtez behin izendatuko dira, Udako Joko Olinpikoak izaten direneko urteetan, Biltzar Nagusia berriztatutakoan, Biltzarreko kideek emandako botoen gehiengoz, askatasunezko, berdintasunezko, artezko eta isilpeko boto-ematez, hauteskunde prozedurarekin bat etorriz. Zuzendaritza Batzordeko kideak ostera ere hautatu ahal izango dira hurrengo hauteskundeetan, izan ditzaketan agintaldi kopuru topea sei izango direlarik

40. artikulua.- Bilkuren Deialdia.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 1.- Zuzendaritza Batzordearen bilkuretarako deia egitea E.E.F.-F.V.F.ko Presidenteari dagokio, edo horren ezean Zuzendaritza Batzordeko kideen %25ari.
- 2.- Deialdiarekin batera, aztertuko diren gaiak jakinaraziko dira.
- 3.- Batzordeko kideei bilkura baino bi egun lehenago gutxienez jakinaraziko zaie, behar bezala bidezko premiazko balizkoak salbu.
- 4.- Dena den, bilkurak baliagarritasun osoa izango du, aurretiazko deirik eza balego ere, kide guztiak bertan egon eta aho batez honela onartuz gero.
- 5.- Erabakiak, daudenen gehiengo bakunez hartuko dituzte, sor daitezkeen berdinketak Presidentearen kalitatezko botoak ebatziz. Erabaki hauek ez dira errekurso-aiak izango Federakundearen justizia-sailetan.
- 6.- Betiere kide guztiak berariaz onartzen dutenean, Zuzendaritza Batzordeak posta elektronikoz, faxez, bideo konferentziaz eta antzeko baliabide teknikoak baliatuz hartu ahal izango ditu bere erabakiak. Kasu horietan, dagokion aktarekin batera, faxaren, mezu elektronikoen eta dagozkien euskarrien ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira.

41. artikulua.- Eraketa.

Zuzendaritza Batzordearen bilkurak baliagarritasun osoa izango du lehenengo deialdian osakideen erdia gehi bat daudenean, eta bigarren deialdian osakideen %25^a gutxienez dagoenean, eta, beti ere, Federakundearen Presidente edo hautatutako Presidenteordea

E.F.F - F.V.F ren Presidente edo, berau ez balego, izendatutako Presidenteordea Zuzendaritza Batzordearen bilkuren buru izango da eta jarduera gidatu eta koordinatu egingo du.

42. artikulua.- Kargu uztearen Zergatiak.

1.- Zuzendaritza Batzordeak, Presidenteak barne, ondoko kausa hauetariko bat dela eta utziko ditu bertan behera egitekoak:

- a) Batzordekideen %50ak baino gehiagok kargua bertan behera uzteagatik edo hiltzeagatik.
- b) Gaitzespen-eskaera ontzat emateagatik.
- c) Batzordekideen %50a baino gehiagokoen gaitzapen edo ezgaitzeagatik.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

d) Agintaldia ahitzeagatik.

2.- Zuzendaritza Batzordeko kideek, aurreko puntuko a), c) eta d) artikulua ataletan adierazitako kausa berak direla eta utziko dute kargua bertan behera indibidualki.

3.- Zuzendaritza Batzordeko kideetarik baten edo gehiagoren banako uztea gertatuz gero, Presidentearena salbu, zerrendan zeuden hurrengoek ordezkatuko lituzkete. Horren ezean, Zuzendaritza Batzordeko gainontzeko kideek gehiengo osoz ordezkoak hauta ditzakete, Biltzar Nagusiak izango duen lehenengo bilkuran berretsi egin behar izango duen hautapenaren bidez.

43. artikulua.- Gaitzespen-eskea.

Biltzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordeari erantzukizunaren eskea egin diezaioke, horretarako deia egindako bilkuran Biltzar Nagusiko kideen gehiengo osoak aldekoa izan beharko duen gaitzespen-eskea onartuz.

Gaitzespen-eskea ontzat emateak, Zuzendaritza Batzordeko kide guztien uztea ekarriko du, E.F.F. – F.V.F aren Presidentearenarena barne delarik.

44. artikulua.- Prozedura.

1.- Gaitzespen-eskea Presidente eta Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu beharko zaio, proposatzaile bakoitzak indibidualki formalizatua, idazki motibatua eta sinatu baten bidez, bakoitzaren NANaren fotokopiarekin batera. gutxienez, Batzarreko kideen %5ek formalizatu beharko dute eta Presidentetzako eta Zuzendaritza Batzordeko titular berriaren aukeraketa proposamena barneratu beharko du.

2.- Presidenteak idazkia jaso ondoren, Ez-Ohizko Biltzar Nagusirako deia egongo du, bertako aztergai bakarra gaitzespen-eskean azaldutako eskaria izango delarik. Eskaria aurkeztutako datatik hilabete batez baino lehen egin beharko du deia.

3.- Biltzar Nagusiak deituta, debatea hasteko, egindako proposamena Biltzar Nagusi kideen gehiengo arruntagatik bultzatua izan behar du, eta bertan kideen erdia eta bat egon behar du.

4.- Bilkura hasitakoan, gaitzespen-eskea egin dutenek izendatutako ordezkariari emango zaio hizpidea, beronek gaitzespen-eskearen zergatiak azaltzen dituelarik. Presidenteak erantzun eta botoak emateari ekingo zaio.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- Gaitzespen-eske, Biltzar Nagusian parte hartu eta eskubide osoa duten biltzarkideen bi hereneko gehiengoak onartu beharko du, inola ere postazko boto-ematea onartuko ez delarik.

6.- Gaitzespen-eskaeraren onarpena Presidentea eta Zuzendaritza Batzordekide guztien uztea suposatuko du.

45. artikulua.- Agintaldiaren amaiera.

Zuzendaritza Batzarkide eta Presidentea bertan bera uztean agintaldi epea bukatzeagatik indarrean segituko dute eta Hauteskunde Batzordearen bilkurarako deia egingo dute, hilabete bateko gehienezko epealdian, hauteskunde-prozesuari hasiera eman diezaion.

Aurrekoa ahalezkoa izan ezean, osakide guztien %5a gutxienez ordezkatzeko duen Federakundearen Biltzar Nagusiko edozein kidegok egin diezaioke dei Hauteskunde Batzordeari.

V KAPITULUA BARNE ARAUDIAREN ORGANOAK

I ATALA IDAZKARI NAGUSIA

46. artikulua.- Definizio eta izendapena.

1.- E.F.F.-F.V.F.-ren Idazkari Nagusiak, Lehendakariak izendatu eta zuzenean beronen menpeko izango delarik, Federakundearen eraketa administratiboa izango du bere gain eta, berez, honako egiteko hauek dagozkie:

a) Biltzar Nagusi eta Zuzendaritza Batzordearen bilkuretako aktak egitea, organo hauen idazkaria izanik. Baita sor litezkeen batzordeena ere.

b) Aipatutako Organoek emandako egintzen ziurtagiri egokiak luzatzea.

c) Lehendakariari eta Zuzendaritza Batzordeari argibideak ematea, hala eskatuko baliote.

d) Bideratzeko gaiak konpontzea.

e) E.F.F.-F.V.F.- pertsonalaren burutza erabiltzea.

f) Federakunde-organoen erabakiak zehatz-mehatz betetzearen jagoletaz izatea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

g) Idazkiak sinatzea.

2.- Idazkari Nagusiaren izendapena aukerabideko izango du E.F.F. - F.V.F.-ren Presidenteak Ez balu izendatuko, idazkariaren egitekoen ardura ere izango luke Presidenteak, egoki deritzen pertsonen esku utz dezakeelarik.

47. artikulua.- Aktak.

Aurreko artikulua-ren 1.a) lerroaldean aipatu diren aktetan, bildutako pertsonen izen-deiturak, izandako hitzartze laburtuak eta egokitzen hartutako bestelakoak zehaztu beharko dira; baita izandako hautespenen emaitza, aldeko botoak, aurkakoak, partikularrak hala izanez gero eta abstentzioak zehaztuz eta hartutako erabakien testua ere bai.

II ATALA DIRUZAINA

48. artikulua.- Definizio eta izendapena.

E.F.F. - F.V.F.-ren Diruzaina, Zuzendaritza Batzordeak bere osakideen artetik hautaturiko pertsona da, ondoko egiteko hauek izango dituelarik bere gain:

a) E.F.F. – F.V.F.aren eragiketa ekonomikoen eta diru-kontuen ardura.

b) E.F.F. – F.V.F.aren kontabilitate-liburuak burutzea eta zaintzea.

c) Behar diren kontabilitate agiri guztiak prestatzea, urteko diru aurrekontuen zirriborroa eta ekitaldi bakoitzeko balantzea bereziki, geroago Biltzar Nagusiak ontzat eman ditzan.

III ATALA KIROL TEKNIKARI ZUZENDARIA

49. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

Kiroleko zuzendari teknikoak Zuzendaritza Batzordeak izendatutako pertsona da eta E.F.F. – F.V.F.ko kirol-teknikari Zuzendaritzaren ardura izango du; ondorengo zereginak ere egin beharko ditu:

a)Zuzendaritza Batzordeari hainbat hautatzaile izendatzea edo lagatzea proposatzea

b)Selekzioen kirol jarduera planifikatzea, parte hartzen duten lehiaketen arabera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

c) Zuzendaritza Batzordeari selekzioek egin behar duten bidaiaren planak eta kontzentrazio programak egin eta proposatzea, parte hartzen duten lehiaketan arabera.

d) Lurraldekako federazioekin koordinatu eta lan egitea selekzioen lurralde arteko txapelketak antolatzen.

e) Kirol proiektuak, egiturak, txapelketako hobekuntzak eta abar egin eta proposatzea, diziplina desberdinetan futbolaren sustapena bultzatzera zuzenduta.

VI KAPITULUA ORGANO TEKNIKOAK

I ATALA ENTRENATZAILEEN EUSKAL BATZORDEA

50. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Euskadiko Entrenatzaileen batzordeak lurralde-federakundeetako entrenatzaileen batzordeak biltzen ditu lankidetzaren erregimenean, entrenatzaileagoaren funtzionamenduan sortutakoei erantzuten die eta beraiei eratzikitako egitekoen gobernu, administrazio eta ordezkatzeari dagozkio, E.F.F. - F.V.F.-ren Presidenteari menpeko izanik.


2.- Batzordeak egindako proposamenak, berari dagozkionetan, E.F.F. - F.V.F.-ren Presidenteari helaraziko zaizkio behin-betiko onespenerako.

3.- Euskadiko Entrenatzaileen Batzordearen lehendakaritza, E.F.F. - F.V.F.-ren Presidentea izendatutakoa eskuratuko du eta lehendakaritza honen osaketa, funtzionamendu-erregimena eta eskumenak araudiaren bidez zehaztuko dira.

II ATALA ARBITROEN EUSKAL BATZORDEA

51. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Arbitroen Euskal Batzordeak, lurralde-federakundeetako arbitroen batzordeak biltzen ditu lankidetzaren erregimenean, federakunde-arbitrokoaren funtzionamenduan sortutakoei erantzuten die eta beraiei iratxotako egitekoen gobernu, administrazioa eta ordezkatzeari dagozkio, E.F.F. - F.V.F.-ren Presidenteari menpeko izanik.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- Arbitroen Euskal Batzordea, Federakundeak antolatutako lehiaketetan eta jardueretan epaitze-lanen zuzentze eta antolatzeaz arduratuko da eta lurralde-batzordeei elkargokideok hesitzen eta erakartzen lagunduko die.

3.- Batzordeak egindako proposamenak, berari dagozkionetan, E.F.F. - F.V.F.-ren Presidenteari helaraziko zaizkio behin-betiko onarpenerako.

4.- Arbitroen Euskal Batzordearen lehendakaritza, E.F.F. -F.V.F.-ren Presidenteak izendatutakoak eskuratuko du eta lehendakaritza honen osaketa eta funtzionamendu erregimena araudiaren bidez zehaztuko dira.

5.- Arbitroen Euskal Batzordeak, diziplinazko ahalmenak izango ditu bere gain, elkargokideen iharduraren aspektu teknikoetara soilki mugatuta badaude ere.

III ATALA

ARETO FUTBOLEKO EUSKALBATZORDEA

52. ARTIKULUA. Definizioa eta izendapena

1.- Areto Futboleko Euskal Batzordeak barne hartzen ditu, lankidetzarako erregimenean, lurralde Federakundeetako areto-futboleko batzordeak, eta hari dagokio, Euskadiko Futbol Federakundearen lehendakariaren zuzendaritzapean, espezialitate hura sustatzea, kudeatzea, antolatzea eta zuzentzea.

2.- Batzordearen proposamenak —berari dagozkion aspektuetan— Euskadiko Futbol Federakundeko lehendakariari igorriko zaizkio, behin betiko onar ditzan.

3.- Euskadiko Futbol Federakundeko lehendakariak izendatuko du Areto Futboleko Euskal Batzordeko lehendakaritza, eta arauari jarraiki zehaztuko dira haren osaera, funtzionamendu-erregimenak eta eskumenak.

IV ATALA

KIROL TEKNIKARIEN EUSKAL ESKOLA

53. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Kirol Teknikarien Euskal Ikastetxeak, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitateen eta Ikerketaren Hezkuntza Kontseilaritzak baimendutako zentro pribatu gisa, bere zentroen bidez, irakaskuntzan jartzen du zuzenean arreta, kirol teknikari eta futbol eta areto futbol espezialitateetan goi mailako kirol teknikarien titulazioak lortzera bideratutako hiru lurralde historikotan, aplikagarriak diren lege arauekin bat etorritik.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- Kirol Teknikarien Euskal Ikastetxearen zuzendaritza E.F.F -F.V.Fko lehendakaritza lortzen duen pertsonaren ardura izango da.

VII KAPITULUA KIROL JUSTIZIAREN ORGANOAK

I ATALA XEDAPEN OROKORRAK

54. artikulua.- Organoak.

Kirol-justiziaren ezarpena egitekotzat duten organoak hauexek dira:

- a) Aginpide eta Diziplina batzordea
- b) Goragotze batzordea
- c) Eskumen eta Kontziliazioa Batzordea

55. artikulua.- Araudia.

Futbol eta Areto Futbolerako diziplina-erregimena, orokorrean Soin-kulturaren eta Kirolaren 14/1998 Legean aurreikusita, zigor-zuzenbidearen oinarri-irizpideen arabera garatzen da, urtarrilaren 10-eko Kirol-diziplinaren Araudiaren 7/1989 Dekretuan eta bestelako garatze-arauetan, berauek lurralde-federakundeetan erabilgarri izango direlarik.

56. artikulua.- Zigor Eremua.

Joko edo lehiaketaren arauen hauspenak eta, aurreko atalean aipaturiko xedapen arabera beraietan adierazitako moduan zer mugaturiko kirol-jokabideenak ere hartzen ditu bere gain kiroletarako diziplina-ahalmenak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

57. artikulua.- Pertsonal Eremu.

E.F.F. - F.V.F.-k, beraren egitura organikoan parte hartzen duten pertsonak bideratzen, klubak eta berauen kirolari, teknikari eta buruzagiak bideratzen, arbitroak bideratzen eta, or-har, E.F.F.-F.V.F.-ri atxikita dauden eta Euskal Herriko Autonomi Elkartearen eremuan karguak bete edo egitekoak burutzen dituzten pertsona edo elkarte guztiak bideratzen erabiliko du diziplina-ahalmena.

II ATALA **DIZIPLINA BATZORDEA**

58. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Diziplina Batzordea afiliatu guztiak bideratzen erabiltzen du diziplina-ahalmena, eta Federakundeak eraturako ihardunera eta lehiaketetan sor daitezkeen edonolako gogaberei edo auziei buruzko erabakiak hartzen ditu.

2.- Zuzenbidean lizentziatuak eta Federakundearen Presidenteak izendatutako hiru kideek osatuko dute.

3.- Diziplina Batzordearen erabakiak gehiengoz hartuko dira eta Goragotze batzordera jo daiteke hartutako erabakien aurka.

4.- Areto-futboleko partidatan edo lehiaketetan emandako gertakariei dagozkien diziplinazko eskumenak zuzenbidean lizentziaduna den txapelketako epaile bakarrak gauzatuko ditu, Euskadiko Futbol Federakundeak hala izendatuta, Areto Futboleko Euskal Batzordearen proposamenez.

III ATALA **GORAJOTZE BATZORDEA**

59. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Goragotze Batzordeak, E.F.F. - F.V.F.-ren Diziplina Batzordeak , Areto Futboleko Epaile Bakarra, eta lurralde federakundeen Diziplina-Organoeak hartutako erabakien aurka egindako errekurtsoen ardura izango du.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- Zuzenbidean lizentziatuak eta federakundearen Presidenteak izendatutako hiru kideek osatuko dute.

3.- Erabakiak gehiengoz hartuko ditu eta Euskadiko Kirol-Diziplinarako Batzordera jo daiteke hartutako erabakien aurka.

IV ATALA ESKUMENEO ETA ADISKIDETZEKO BATZORDEA

60. artikulua.- Definizioa eta izendapena.

1.- Eskumeneko Batzordea eta Adiskidetzeko Lantaldeari dagokio gaiak, auziak edo diziplina izaera edo partida izaera ez duten eta federazio erakundea osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoen artean edo horien bidez sortutako erreklamazioak edo asmoak ezagutu eta ebaztea.

2.- Diziplinazko Batzordeko kide berberak osatuko dute.

3.- Eskumeneko Batzordearen akordioak gehiengoz hartuko dira eta Kirol Justiziaren Euskal Batzordearen aurrean errekurritu ahal izango dira.

4.- Adiskidetze Lantaldearen akordioak gehiengoz hartuko dira eta kirol bidearen bidez amaituko dira.

IV TITULUA KIDE AFILIATUAK EDO FEDERAKUNDE ESTAMENTUAK

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

61. artikulua.- Lurralde Antolakuntza.

E.F.F. - F.V.F.-k, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralde federakundeak biltzen ditu lankidetzaren erregimenean, eta hauen bidez kirolari, teknikari eta arbitroen estamentuak, guztiak dagozkien federakunde lizentziakin, eta lurralde federakundeei atxikitako klubak eta kirol-elkartek.

62. artikulua.- Eskubideak.

E.F.F. - F.V.F.-ren estamentuen partaideek, honako eskubide hauek gutxienez izango dituzte:



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

a) Ordezkatu egotea eta ardura eta gobernu-organismoetan parte hartzea, Estatutu hauek eta araudi ezaugarriak haientzat hartzen dituzten eran eta proportzioan.

b) Federakundeak antolatutako edonolako ekintzetan parte hartzea, berak honetaz ezarritako arauen arabera.

c) Eskatutako argibide guztiak jasotzea eta askatasun osoz federakunde-gaiei buruzko iritzia eta usteak adieraztea kirol honen garapena egokien izan dadin.

d) Eskudun diren federakunde-organismoetara jotzea, federakunde arauak bete daitezela.

e) Egoki deritzen kontsultak eta eskakizunak egitea, Federakundearen arauak kontutan hartuz.

f) Federazio Lizentziaren egiaztagiri izatea.

63. artikulua.- Betebeharrak.

Federakundearen estamentuetako partaideek honako eginbeharrak izango dituzte:

a) Ezarritako diru-kuotak ordaintzea.

b) Federakunde-organismoek baliagarritasunez onartutako erabaki guztiak betetzea.


c) Federakundearen helburuak lortzen aktiboki laguntzea.

d) Hala izanez gero, dauzkaten karguei atxikitako eginbeharrak zintzoki betetzea.

II KAPITULUA FUTBOLARIAK

64. artikulua.- Definizioa.

Estatutu hauei dagozkienetarako, E.F.F. - F.V.F.-k kontrolatu eta araututako futbol-kirolaren edozein modalitate edo espezialitatetan aritzeko edo lehiatzeko dagoen federakunde lizentziaren jabe nahita diren guztiak dira futbolariak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Hala behar izanez gero, Biltzar Nagusiak, kirolariak sailka daitezkeeneko motak edo kategoriak ezar ditzake, afizionatu ala profesionalen arteko oinarritzko desberdintasuna kontutan hartuz.

65. artikulua.- Eskubideak.

Futbolari federatuen eskubideak honako hauek dira:

- a) Federakunde lizentziaren jabe izatea.
- b) Bere lurralde-eremuan, elkarte edo elkarte gaindiko izaerakoetan eta bere federakundearen ordezkaria denetan izango diren kirol-lehiaketa eta ekintzetan parte hartzea.
- c) Futbolearen aritzean edo aritzearen ondorioz izandakoak direla eta urgazpen medikoa, edo sanitarioa jasotzea.
- d) Askatasun osoz Federakundetik aldentzea.
- e) Klubetarako adierazitakoak.

66. artikulua.- Betebeharrak.

Futbolari federatuen betebeharrak hauexek dira:

- a) Bere Klubak parte hartzen dueneko Kirol-lehiaketa edo ekintzabideetara joatea.
- b) Diziplinaren, Federakunde Araudien eta Estatutu hauen pean jartzea.
- c) Dagokion lurralde-federakundeak dei egindako probetara eta selekzioetara joatea; baita euskal selekzioetara ere.
- d) Dagozkion diru-kuotak ordaintzea.

III KAPITULUA ENTRENADORE ETA ARBITROAK

67. artikulua.- Entrenadoreak Definizioa.

Estatutu hauei dagozkienetarako dagokien titulua eduki eta afiliatuta egonez modalitate edo espezialitate desberdinetan futbol-taldeak zuzentzeko edo entrenatzeko gai diren guztiak dira teknikariak.

68. artikulua.- Árbitroak Definizioa.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Estatu hauei dagozkienetarako, beren elkargokidetzat bete duten edo E.F.F. - F.V.F.-k halaxe haintzat hartzen dituen eta beronek bere lurralde-eremuan edo, lurraldez gaindikoa izaki, bere izeneztapenari dagozkionetan antolatzen dituen lehiaketetan zuzentze eta teknikari egitekoak betetzeko baimena duten tartekori titulatu guztiak dira arbitroak.

IV KAPITULUA KLUBAK

69. artikulua.- Definizioa.

Estatutu hauei dagozkionetarako, lege-nortasundunak diren ihartutzako gaitasuna duten eta lehiaketa ofizialetan parte hartu ohi dutelarik futboleant aritzea helburu duten diru irabazi asmorik gabeko elkarte pribatu guztiak dira klubak.

70. artikulua.- Araudia.

Beraien eraketari eta funtzionamenduari dagokienez, Euskal Herriko Kirolaren 14/1998 Legea, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren ekainaren 22eko 163/2010 Dekretua, zeinak arduratzen den klub eta kirol elkarten sorketa eta jardueraz, garatzen dituzten arauak, Estatutu hauek eta beraien biltzar nagusiek eta gainontzeko organoek baliagarritasunez onartutako erabakiak izango dituzte jaurbide klubek.

71. artikulua.- Esleipena.

Hiru Lurralde Historikoetako klubak eta kirol-elkarteak, dagokien lurralde-federakundeari atxikiko zaizkio lehiaketa ofizialetan aritzeko eta parte hartzeko. Atxikipena urtez urtekoa eta berriztagarria izango da.

72. artikulua.- Eskubideak.

Kluben eskubideak hauexek dira.

a) Berari dagokion lurralde-federakundeak antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzea, beti ere bertan afiliatuta egonez gero; baita E.F.F. - F.V.F.-antolatutakoetan eta bere sailkapenari esker lortutako goragoko mailakoetan ere.

b) Beste talde espainiar edo atzerritar batzuekin adiskidetasunezko partiduak jokatzeko, beti ere behar diren beharkizunak betez gero.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

c) Eskudun organoetara jotzea, federakunde-araudiak eta berauetatik sortutako kirol beharkizunak betetzeari ekin diezaioten.

d) Aurreko organoei edonolako kontsulta mota edo eskakizuna helaraztea eta federakunde-agirien argibideak biltzea.

73. artikulua.- Betebeharrak.

Kluben betebeharrak hauexek dira:

a) Diru-kuotak eta federakunde eskubideak sasoiz ordaintzea, egokitutakoaren arabera.

b) Dagokion lurralde-federakundeari eta E.F.F. - F.V.F.-ri uztea federakunde gisa lehiaketetan parte hartzeko eskatutako futbolariak.

c) Legalki onartutako eta argitaratutako federakunde araudi eta norma guztiei onartzea, baita federakunde organoek baliagarritasunez hartutako erabakiak

V TITULOA HAUTESKUNDE-ERREGIMENA

74. artikulua.- Araudia.

E.F.F. - F.V.F.-ren hauteskunde-erregimenak, urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren VII titulua, Euskal Herriko kirol Federazioena, beronen garapenerako ezarritako erabakiak, Estatutu hauek eta Biltzar Nagusiak derrigorrez ontzat eman behar izango duen hauteskunde-araudia izango ditu jaurbide.

75. artikulua.- Hauteskunde Batzordea.

1.- Federakundearen, hiru kidek osatutako hauteskunde batzordea izango da, hauteskunde-prozesua bultzatzeko eta beronen garapen zuzenaren izateko.

2.- Hauteskunde Batzordeko agintaldiak lau urte irauten du, baina Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak, kargutik kendu ahal izango du, bai eta beste bat izendatu ere aldi hori amaitu baino lehen.

3.- Kargua uzten duen Hauteskunde Batzordeak bere jarduerarekin jarraituko du Hauteskunde Batzorde berria izendatzen den arte.

76. artikulua.- Osaketa.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

1.- Hiru kidek eta beste horrenbeste ordezkok osatuko dute Hauteskunde Batzordea. Zeinak hautatuak izango dira, haien jamenek kontutan izanik, Batzar Orokorratik Hauteskunde prozedura hasi baino lehenagoko bere asken bileran eta Federakundearen partaide barnetik. Presidentea eta idazkarian haien tartetik hautatuz.

2.- Inoiz ezin daitezke hauteskunde batzordearen partaide izan hautagai gisa aurkeztuko direnak; izendatutako Hauteskunde Batzordeko kideren bati gertatuko balitzaio, bere kargua utzi egin behar izango luke eta beraren lekua izendatutako ordezkoak beteko luke.

77. artikulua.- Batzordearen Funtzioak.

1.- Hauteskunde batzordeak, beti ere, ondoko eginkizun hauek izango ditu:

- a) Hautesle-zerrenda eta hauteskunde-egutegia onartzea.
- b) Aurkeztutako hautagai-zerrendak aldarrikatzea eta iragartzea.
- c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.
- d) Hautatuak hautagaiak aldarrikatzea.

e) Aurkez daitezkeen jazarpenak, zuzenketa-eskeak eta eskabideak eta hauteskunde mahaiaren erabakien aurka egin daitezkeen jazarpenak erabakitzea.

f) Hauteskundearen egitarapenari eta berauen emaitzei zuzenean eragin diezaien edozein arazo.

2.- Hauteskunde Mahaiko erabakien aurka egin ahal izango da Hauteskunde Batzordearen aurrean

78. artikulua.- Hauteskunde Mahaia.

Hauteskunde batzordeak, hautagai izango ez diren hautesleen artetik, hiru kidek osaturiko hauteskunde-mahaia zozketa bidez izendatuko du, baita beste horrenbeste ordezko ere, bertako lehendakaria eta idazkaria zaharrena eta gazteena hurrenez hurren izango direlarik.

79. artikulua.- Funtzioak.

1.- Hauteskunde-mahaia honako egiteko hauek izango ditu:

- a) Boto-emateen egitarapen egokiaz arduratzea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- b) Boto-emaielen nortasuna eta hautagarritasuna egiaztatzea.
- c) Emandako botoen baliagarritasunaz erabakitzea.
- d) Boto-ematea bukatutakoan, botoen kontaketa egitea.
- e) Boto-emateari dagokion beste edozein arazo.

2.- Hauteskunde Mahaiko erabakien aurka egin ahal izango Hauteskunde Batzordearen aurrean.

80. artikulua.- Argibide eskubidea.

Hauteskunde-prozesuari dagozkion bestelako arazoak, hauteskunde araudian araupetu behar izango dira. Hauteskunde araudiak, beti ere, Federakundearen kirol estamentuetako partaide guztiei informazioa bermatu behar izango die; baita berauek federatuta egoteagatik dituzten eskubideen erabilera ere.

VI TITULUA **Ekonomi eta finantzia erregimena**

I KAPITULUA **XEDAPEN OROKORRAK**

81. artikulua.- Erregimena.

E.F.F. - F.V.F. bere dituen aurrekontu eta ondare-erregimenaren menpe dago.
E.F.F. - F.V.Fk betebeharrei dirutan erantzungo die, une horretan eta etorkizunean dituen ondare guztiez baliatuz.

II KAPITULUA **BALIABIDE EKONOMIKOAK**

82. artikulua.- Ondarea.

- 1.- E.F.F. - F.V.F.-ren ondarea, berari dagozkion ondasunek osatuko dute.
- 2.- E.F.F. - F.V.E.-ren baliabide ekonomikoak, besteak beste, hauexek izango dira:
 - a) Federatuen diru-kuotak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- b) Erakunde publikoek eman diezazkioketen diru-laguntzak.
- c) Opariak, jaraunspenak, legatuak eta sariak.
- d) Antolatutako kirol-ekintzabide eta lehiaketek sor ditzaketan etekinak.
- e) Aurrera eramandako industria, merkataritza, ogibide edo egindako zerbitzuetatik etorritako etekinak.
- f) Beraren ondarearen emaitzak eta beraren salmentaren edo kargatzearen emaria. Estatutu hauetako 90. artikulua.-.-n ezarritako moduan.
- g) Lor ditzakeen mailegu edo kredituak.
- h) Real Federación Española de Fútbol erakundeak eman diezazkioketen aurrekontu zuzkidurak.
- i) Diziplina-ahalmena erabiltzearen ondorioz gerta daitezkeen zehapen, isun eta abarren zenbatekoa.
- j) Bere ihardunean lor litzakeen beste edo zeintzuk.

83. artikulua.- Zorrekko Jabetza Agiriak.

1.- Zorrekko eta heineango ondare zatiko jabetze-agiri ordezkagarriak, Federakundearen kideek baino ezin ditzakete harpidetu, eta berauek izateak ez die inolako eskubide berezirik emango, lehendabizikoetarako indarrean dagoen legedian ezarritako mozkinak eskuratzea salbu.

2.- Zorrekko eta heineango ondare zatiko jabetza-agiri ordezkagarria, Biltzar Nagusiak ezar ditzakeen baldintzetan eskurakoi izango dira.

84. artikulua.- Gordailu.

Bere helburuak aurrera eramate E.F.F. - F.V.F.-k erabilgarri izan ditzakeen diru-kopuruak, kreditu-entitate, aurrezki-entitate edo banketxe batean gordailatuko dira Federakundearen izenean.

III KAPITULUA DIRU-AURREKONTUAK

85. artikulua.- Onarpena.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 1.- E.F.F. - F.V.F.-k urtero ekitaldiaren diru-aurrekontuak ontzat emango ditu, baita aurreko ekitaldiari dagozkion balantzea eta likidazioa ere.
- 2.- Administrazio organoaren ardura da urtero aurrekontuen proiektua gauzatzea, eta Batzar Nagusiari dagokio onartzea.
- 3.- Aurrekontuan E.F.F. – F.V.F k gehienez onar ditzaketen betebeharrak adierazi beharko dira, zifraz horniturik, era bateratuan eta sistematikoki, bai eta dagozkion ekitaldian likidatuko dituzten eskubideak ere.
- 4.- Aurrekontu bakarra egongo da, eta E.F.F. – F.V.Fko gastu eta diru sarrera guztiak barne hartuko ditu, organo osagarrienak eta horien trenaz erakundeenak barne. Kudeaketako edo antolamenduko beharrek hala eskatzen dutenean, kirol federazioek kontabilitateko azpi erakundeak sortu ahal izango ditu, sistema zentrolean behar bezala integratuta egongo direnak.
- 5.- Aurrekontu orekatuak onartuko dira, eta inolaz ere ez da onartuko defizita sortzen duen aurrekonturik aldeztu aurretik dagozkion Kirol Administrazioaren baimena eskuratu gabe
- 6.- Behin Batzar Nagusiaren onarpena lortutakoan, aurreko ekitaldiko aurrekontua eta likidazioa kirol gaitan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako organoari helaraziko zaizkio.
- 7.- E.F.F. –F.V.Fko Zuzendaritza Batzordeak aurrekontua aldatu ahal izango du, estatuen arabera horretarako eskumena duen kasuetan, estatuetan bertan zehazten diren mugekin bat, betiere.
- 8.- Guztizko aurrekontuaren %20 gainditzen duten programen arteko kreditu transferentzietarako, Eusko Jaurlaritzako dagozkion organoaren baimena behar izango da.

86. artikulua.- Aurkezpena.

- 1.- Ekitaldi bakoitza itxi eta hiru hilabete geroago, E.F.F.-F.V.Fko administrazio organoek dagozkien Batzar Nagusietan aurkeztu beharko ditu erakundearen urteko kontuak, galeren eta irabazien balantzea et memoria ekonomikoa barne daudelarik.
- 2.- Zuzendaritza Batzordeak egiten dituzten urteko kontuak Presidenteak izenpetu beharko ditu, bai eta diruzainak, hala badagokio.

87. artikulua.- Irabazien Ezarpena.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

E.F.F. – F.V.F ren diru-sarrera guztiak, kirol-adierazpideetan lortutako sariak eta etekinak barne direlarik, baita industria, merkataritza, ogibide eta zerbitzu ekintzabideak egitetik lor ditzakeenak ere, baltzu-xedearen hobekuntzarako erabiliko dira oso-osorik.

Inola ere ezin izango da etekinen banaketarik egin Federakundearen kideen artean.

88. artikulua.- Zergapetu eta Besterendu.

1.- E.F.F. – F.V.F.ak ondasun mugiezinak sal eta zergape ditzake, dirua maileguz hartu eta zorroko edo heineango ondare zatiko jabetza-agiri ordezkagarriak atera, ondoko baldintza hauek betetzekotan:

a) Egintza hauek ez dezatela arriskuan jar erakundearen ondarea edo baltzu-xedea, dagokion profesional gaidun batengan eginiko erizpenaren bidez arrazoi daitekeelarik.

b) Egintza hauek Biltzar Nagusian daudenen botoen bi hereneko gehiengoaz onartuak izatea.

2.- E.F.F. – F.V.F ren ondasun mugiezinak zergapetzeko edo saltzeko eta berauen erosketa osorik edo aldez finantzatzeko administrazio publikoen diru-fondoak erabili baldin baziren, dagokion Kirol-Artezkartzaren baimena izango da arauzko, Biltzar Nagusira aurkeztu aurretik.

3.- Halaber, E.F.F. – F.V.F. ren urteko diru-aurrekontuen %25a baino gehiagokoa den maileguz dirua hartzeko edo zor-agiriak ateratzeko, dagokion Kirol-Administrazioaren baimena izango da arauzko, Biltzar Nagusira aurkeztu aurretik.

89. artikulua.- Zorroko jabetza-iriak.

1.- E.F.F. – F.V.F ak atera ditzakeen zorroko edo heineango ondare zatiko jabetze-agiri ordezkagarriak, jabe-izendunak izango dira.

2.- Jabetza-agiriak, 95.1. d) artikulua.-n aurreikusitako liburuan zehaztuko dira, bertan aurreratzeke jabe-aldaketak jasoz.

3.- Jabetza-agiri guztietan izeneko balioa, ateratze-data eta hala badagokio, mozkina eta kitapen-aldia ahaztuko dira.

4.- Inola ere ezin izango da baimendu kitaturiko jabetza-agiriak ateratzea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- Dagokion Kirol-administrazio zorreko edo heineango ondare zatiko jabetza-agiri ordezkagarriak ateratzeko baldintzak zainduko ditu, Biltzar Nagusiaren onarpenerako aurkeztu aurretik. Ordezkagarriak ateratzeko baldintza aztertu ondoren oraingo legen arau-hausterik nabaritu ezker, dagokion administrazioak bultatuko dio E.F.F. - F.V.F.ri ateratzeko proposamena. Arau-haustea konpondu ondoren berriro aurkeztu beharko da abere onarpenerako.

90. artikulua.- Ordainketen Burutzapena.

- 1.- Ontzat emandako ordainketen burutzapena Diruzainari dagokio.
- 2.- Kirolari profesionalei eta afizionatuei dagozkien diru-sarrerak eta irteerak ezberdindu beharko dira diru aurrekontuetan.
- 3.- Diru-aurrekontuak likidatu ondoren ekitaldiko azken soberakina, baldin balego, hurrengo diru-aurrekontuetan diru-sarrera gisa agertuko da.

91. artikulua.- Balantzea.

Zuzendaritza Batzordeak, Biltzar Nagusi arruntean aurkeztuko du balantzea, partidak zehaztuz eta defizita, superabita ala oreka aditzera emanaz. Urte ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n bukatuko da.

E.F.F.-F.V.F.k Estatutu hauetako 95.1 c) artikulua.-n ezarritako kontabilitate-liburuak beteko ditu, baita egoki deritzen liburu laguntzaileak eta indarrean dagoen legediaren arabera beharrezko diren guztiak ere.

92. artikulua.- Kontu Ikuskaritza.

E.F.F.-F.V.F.k, urtarrilen 31ko 16/2006 Dekretuaren 144.etik aurrerako artikuluetan ezarritako auditoria-erregimenaren menpe egon behar izango du.

VII TITULO Agiri-erregimena

I KAPITULUA FEDERAKUNDEAREN LIBURUAK

93. artikulua.- Liburuak.

- 1.- E.F.F.-F.V.F.-k halabeharrez honako liburu hauek izango ditu:
 - a) Federazioko estamentuen liburuak, bost ataletan banatuta: klubak eta kirol talde atxikiak; kirolariak; Teknikariak; epaileak; eta bestelako kolektiboak.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Atal horiek eguneratuta egongo dira, eta federazioan sartu diren data nahiz federaziotik atera diren data azalduko dira.

b) Federakundearen akten liburua, Federakundearen Biltzar nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak ontzat emandako erabakiak jasoz.

c) Kontabilitate-liburuak, Federakundearen diru-sarrerak eta irteerak jasoz.

d) Hala behar izanez gero, zorroko edo heineango ondare zatiko jabetza-agirien errolda liburua. Liburu hauek Eusko Jaurlaritzako Kirol-Elkarte eta Federakundeen Erroldan legeztatu behar izango dira.

2.- Aurreko liburuaz arduratzeko beharra egongo da, bestelako xedapenetatik ondorioztatzen diren betebeharrak gorabehera.

3.- Kirol garietan eskumena duen organoak legeztatuko ditu liburuak, Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistro arauekin bat, betiere.

II KAPITULUA FEDERAKUNDEAREN ARAUDIAK

94. artikulua.- Araudia.

E.F.F.-F.V.F.k honako hauek gutxienez araupetu beharko ditu:

- a) Lehiaketen antolaketa eta garapena finkatzeko arauak.
- b) Diziplina-erregimena.
- c) Hauteskunde-erregimena.
- d) Legez kanpoko arazozen konponketarako erregimena
- e) Lizentzien erregimena

95. artikulua.- Onarpena.

1.- Federazioaren arautegiak kiroletan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzari aurkeztuko zaizkio, onar ditzan, hirurogei egun naturaleko apean, federazioko batzar nagusian onartzen diren unetik zenbatzen hasita.

2.- Arautegi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroak eskatzen duen euskarri informatikoan.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

3.- Eskumena duen organoak arautegien administrazio onarpena emango du bi hilabeteko apean, eskaera erregistroan sartzen den unetik zenbatzen hasita.

4.- Federazioaren araudiak nahiz horien aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratuko dira, behin administrazioaren aldetik onartu direnean.

5.- Federazio estutuak indarrean sartzeko, onartu egin beharko dira eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan erregistratu beharko dira. Arautegi horiek erregistratzen diren unetik egongo dira indarrean, bai federatuentzat, bai hirugarren pertsona eta erakundeentzat. Administrazio oparena eman bitartean, federazioko arautegiak inongo eraginkortasun gabeko proiektuak dira.

VIII TITULUA Deuseztapen eta Iraungipena

96. artikulua.- Deuseztapen.

1.- E.F.F. - F.V.F.a desegin egiten da Batzar Nagusiak hala erabakitzen dutenean (dekretu honetan ezartzen diren baldintzen arabera eta gehiengoz, betiere) edota horretarako erabaki judiziala ematen denean. Batzar Nagusiaren erabakiak aurretik ez da ondorengo artikulua.-n zehazturik dagoen kausarik gertatu behar.

2.- E.F.F. - F.V.F.k desegin egin behar dira honako hautako bat gertatzerakoan:

a) E.F.F. – F.V.F.ren onarpen ofiziala baliogabetzea, federazioa erregimen orokorreko elkarte bihurtzen bada izan ezin.

b) Administrazio funtzio publikoak behera bezala betetzea guztiz ezinezkoa izatea.

c) Federazioko organoak gelditzea, eta ondorioz, funtzio dezaten ezinezkoa izatea.

d) Eskuordetzen zaizkio funtzio publikoak ez betetzea.

e) Beste kirol federazio batekin bat egitea.

f) Beste kirol federazio batean sartzea.

g) Indarrean diren legeetan jasota dagoen beste edozein arrazoi gertatzea.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

97. artikulua.- Biltzar Deialdia.

1.- Presidenteak Batzar Nagusiari deituko dio, dagokion desegiteko erabakia har dezan. Erabakia bi hilabeterako apean hartu behar da, desegitea eragiten duen kausa ezagutzen den unetik zenbatzen hasita.

2.- Pertsona federatuek eta eskumena duen kirol administrazioak berak ere Presidenteari eskatu ahal izango diote. Batzar Nagusiari dei diezaion, baldin eta, haien ustez, aurreko artikulua.-ren bigarren atalean zehaztuta dauden kasuetarako bat gertatzen bada.

3.- Baldin Batzar Nagusiari ez bazaio deitzen, baldin ezin bada adostasuna lortu, edo ez desegitea adosten bada, edozein federatuenak edo eskumena duen kirol administrazioak berak E.F.F. – F.V.F.ren desegite judiziala eskatu ahal izango du.

4.- E.F.F. – F.V.F.ko administrazio organoa bera behartuta dago desegite judiziala eskatzera, federazioaren erabakia desegitearen aurkakoa baldin bada, edo ezin bada desegitea lortu.

5.- Desegite adoste aldera, era solidarioan erantzungo dute bi hilabeteko apean, Batzar Nagusiari deitzeko betebeharra bete ez duen administrazio organoko kideek, bai eta bi hilabeteko apean desegite judiziala eskatzen ez dutenek ere. Epe hori Batzar Nagusia egin behar zen datatik (Baldin eta ez bada egin) edo ez desegitea adosten den unetik hasi behar zenbatzen.

98. artikulua.- Likidazioa.

1.- E.F.F.-F.V.F.k desegindakoan, likidatzeko aldia hasten da, bat egiteak edo desegiten den E.F.F.-F.V.F ko aktiboen eta pasiboen lagapen globala gertatzen denotan izan ezik.

2.- E.F.F.-F.V.F. nortasun juridikoa gordetzen du likidatzen ari den bitartean, aldi horretan, "likidatzen" hitza gehitu beharko dio bere izenari.

3.- E.F.F.- F.V.F.k likidatzen hasi dela adierazten duen unean, administrazio organoak bere funtzioak bertan behera utziko ditu, eta likidatzaileek euren gain hartuko dituzte funtziook. Hala ere, administrazio organoko kideek parte hartu beharko dute likidazio eragiketak gauzatzen.

4.- Federazioko ondareen likidatzea hasteko batzorde bat izendatuko da, zeinerako Batzarrak 5 Batzarkide hautatuko ditu, E.F.F.-F.V.Fko presidenteak presidituko du Idazkari eta Diruzainaren laguntzaz.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

5.- Bai likidatzaileak izendatzen direnean bai kargutik kentzen direnean, Kirol Erakundeen Euskadiko Erregistroan jada beharko da.

99. artikulua.- Likidatze Funtzioak.

1.- Honako hauek dira E.F.F. – F.V.F.ko likidatzaileen ardurak

a) Administrazio organoarekin batera, euren funtzioetan hastean E.F.F.-F.V.F.k duen hasierako balantzea onartzea.

b) E.F.F.-F.V.F. liburuez eta korrespondentziaz arduratzera eta horiek zaintzea, bai eta federazioaren ondarearen segurtasuna bermatzea ere.

c) E.F.F.-F.V.F. likidatzea egiteko dauden eragiketak nahiz eragiketa berriak gauzatzea.

d) Federazioen ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun Mugiezinak enkarte publikoan salduko dira nahitaez. Eskumena duen kirol administrazioak baimentzen duen kasuetan baino ezin izango dira zuzeneko salmentak egin.

e) Transakzioak eta arbitrajeak adostea, federazioaren interesei hala komeni zaienean.

f) Hartzekodunei ordaintzea

g) E.F.F.-F.V.F.ren ordezkaria izatea.

2.- E.F.F. – F.V.F.ren aurrean kitatzaileak erantzule izango dira, haien partaide edo hirugarren pertsonak edo elkarteen aurrean egin dezaketen kalteengatik, haien karguen jardueran eragin dezaketen atzipen edo arduragabekeri larriagatik.

3.- Likidazioa amaituta, kitatzaileak balantze finala egin behar dute zeinak Biltzar Orokorrak onartu beharko du eta dagokion kirol administrazioa zuzenduko da.

100. artikulua.- Administralari Egiaptapena.

1.- Eskumena duen kirol administrazioak likidazioa kontrolatzeko ardura izango duten pertsonak izendatu ahal izango ditu, indarrean diren legeak bete daitezzen bermatze aldera.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2.- E.F.F.-F.V.F.n ez badago administrazio organorik, edota administrazio organoak bere funtzioak bertan behera utzi baditu, dagokion kirol administrazioak likidatzaile izendatu ahal izango ditu.

101. artikulua.- Funtzioak.

Honako hauek dira likidatzaileen jarduera amaitzeko arrazoiak:

- a) Likidazioa burutzea
- b) Batzar Nagusiak emandako ahalordek balio-atzea.
- c) Dagokion kirol administrazioak ahalordeak baliogabetzea edo gaitasunik gabe uztea.
- d) Erabaki judiziala.

102. artikulua.- Kaudimen gabezia.

1.- Baldin eta E.F.F.-F.V.F.k ez badu kaudimenik, likidatzaileek berehala eskatu behar dute dagokion lehiaketa adierazpena.

2.- Euskadiko kirol federazioaren bat desegiten bada, kirol gaietan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak, lehentasunez, dagokion futbola sustatzen eta dagozkion jardueretan erabiliko du likidaziotik ateratzen den ondare gordina.

IX TITULOA

Estatutuen onespén eta aldaketa

103. artikulua.- Prozedura.

1.- E.F.F.-F.V.F.-ren Estatutuen onespén edo aldaketa, honako prozedura honi lotuko zaio:

- a) Federakundearen zerbitzu juridikoek, aurreproiektuaren zirriborratua gertutako dute, legalki ezarritako oinarriak kontuan hartuz.
- b) Aipatutako zirriborroari bukaera emandakoan, Zuzendaritza batzordeari aurkeztuko zaio, bere txostena, zioak emanez, eman dezan.
- c) Onespén lortu ondoren, Biltzar Nagusiko kide guztiei bidaliko zaie indibidualki testua, zioak emanda egoki deritzeten emendakinak edo



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

iradokizunak egin ditzaten inoiz ere hamabost egun baino gutxiagokoa izango ez den epealdi emanaz.

d) Biltzar Nagusiaren bilkurarako deia egingo da, beroni baitagokio onespena. Proposaturiko testua eta hala izanez gero aurkeztutako emendakinak eztabaidatu ondoren, biltzarrak erabaki egingo du.

e) Hala izanez gero, onspen egokia berretsitakoan, 70 eguneko apean aurkeztuko dira bere onarpenerako kirol arduran duen dagokion sailean.

2.- Estatutuen aldaketa-prozesuari, E.F.F.-F.V.F.-ren Presidenteak edo Zuzendaritza Batzordeko kideen bi herenek proposaturik baino ez zaio hasiera emango, legezko aginduagatik denetan salbu.

3.- Estatutuen onspenak zein aldaketak, aparteko Biltzar Nagusian bildutako kideen bi hereneko gehiengoak ontzat emandako erabakia beharko du.

BESTE XEDAPEN BATZUK

GEHIAGARRIZKO XEDAPENA

Lehena.- Bestelakorik ezarri ezean, Estatutu hauetan ezarritako epemugak eta epealdiak, egutegiko eguntzat hartuko dira.

Bigarrena.- Federazio ordenamenduan pertsona fisikoen ingurukoak diren termino guztiak berdin aplikatuko dira gizonengan eta emakumeengan.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek, Euskal Herriko Kirol Elkarteen Erregistroan izen eman eta onartuak daude.